

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Pagoetako Administrazio Batzarraren jabetzako ondasun higiezin bat (etxebizitza eta orubea) alokatzea**

Deialdia hutsik geratu zenez gero, bat etorritz 2023ko urtarrilaren 13ko kontzeju irekiaren erabakiarekin, iragarki honen bidez, «Las Escuelas» izeneko etxebizitza eta orubea errentan emateko lehiaketarako deialdia egiten da. Higiezin hori (katastro erreferentzia: 1 poligonoko 674 lurzattia) kontzeju honen jabetzako da. Ondasun higiezinaren inbentarioan ondare ondasun kalifikatuta dago, Pagoeta hiribideko 26. zenbakian (Pagoeta), eta etxebizitza gisa erabili nahi da, honako datu hauen arabera:

1. Erakunde adjudikatzailerak: Pagoetako Administrazio Batzarra.

a) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Administrazio Batzarra.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

1) Bulegoa: udaletxea.

2) Helbidea: Frai Jacinto Martínez plaza, 2.

3) Herria eta posta kodea: Urizaharra, 01212.

4) Telefonoa: 638510538.

5) Helbide elektronikoa: [payuetajunta@gmail.com](mailto:payuetajunta@gmail.com).

6) Interneteko helbidea: [www.penacerrada-urizaharra.com](http://www.penacerrada-urizaharra.com).

2. Kontratuaren xedea: Pagoetako Administrazio Batzarraren jabetzako etxebizitza errentan ematea.

a) Etxebizitza dagoeneko tokia: Pagoeta.

b) Helbidea: Payueta etorbidea, 26.

c) Herria eta posta kodea: Pagoeta. 01211.

d) Errentamendu epea: zazpi urte.

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: lehiaketa publikoa.

c) Esleipen irizpideak: ekonomia eskaintzarik onena, gehien eskaintzen duena, zenbait esleipen irizpiderekin:

1) Preziorik onena: 80 puntu.

2) Errentan hartzen den etxebizitzan biziko den kide gehien duen bizikidetzaren unitateari: 5 puntu.

3) Ohiko etxebizitza izango duenari: 10 puntu.

4) Urizaharrean erroldatuta dagoela egiaztatzen duenari: 5 puntu.

4. Alokatzearen zenbatekoa:

a) Alokatzearen zenbatekoa: 600,00 euro hilean. Zenbateko hori urtero berrikusiko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren KPlaren arabera, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

5. Fidantzak:

a) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: bi hilabeteko alokairua.

6. Eskaintzak aurkeztea: Urizaharreko Udalaren bulegoetan -Fray Jacinto Martinez kalea, 2. zenbakia, Urizaharra- 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

7. Agiriak aztertzea: Urizaharreko udal bulegoetan, aurreko atalean zehaztutako ordutegian eta [www.penacerrada-urizaharra.com](http://www.penacerrada-urizaharra.com) helbidean , lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintza eredia: onetsitako administrazio klausulen agiriari adierazitakoak.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pagoeta, 2023ko urtarrilaren 16a

*Lehendakaria*

*JOSÉ ÁNGEL RUIZ DE SAMANIEGO RAMÍREZ DE LA PISCINA*